



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuaren **funtsezko baliabideak** honako hauek izango dira:

Lehenik eta behin, **baliabide fisikoen** aldetik, bilerak eta lanak egin ahal izateko, lokal bat izango dugu, beraz, bertan bilduko gara enpresako kideok. Lokal horretan, gure lana aurrera eramateko beharrezko materiala baitaukagu (altzariak, ordenagailuak, mugikorrak, dokumentuak.).

Baliabide intelektualen aldetik berriz, ideia diseinua, autodefentsaren ezagutzak eta bitartekoak ditugu; bai ertzainekin bai eta erakunde publikoekin ere, eta honako honek abantaila handia du, honako arlo hauetan ez baitugu horrenbesteko menpekotasunik izango kanpoko eragileekiko.

Giza baliabideei dagokienez, taldeko kide bakoitzak bere funtzioak izango ditu, esate baterako;

Alaia Usabiagak lokal bat du eskuragarri, gainera, teknologia erabili eta ulertzeko erraztasuna du eta hau gutxi balitz, ekonomiaren arloa menperatzen du.

Olaia Ugartek aldiz, diseinuaren mundua ezagutzen eta menperatzen du, hau da, marrazteko eta irudikatzeko erraztasuna du.

Ainhoa Seguirolaren kasuan, erakunde publikoekin bitartekaritza aritzeko aukera eta erraztasuna du; udaletxeekin, Emakunderekin, Eusko Jaurlaritzarekin...

Azkenik, Aintzane Agirrek, proiektuaren eta enpresaren erredakzioa egiteko gaitasuna izateaz gain erraztasunez egiten du. Gainera, autodefentsaren jabetza du bai eta ertzainekin kontaktatzeko aukera ere.

Amaitzeko, **finantza baliabideen** kasuan, aurrezki batzuk ditugun arren, inbertsore batzuk beharko ditugu, gure proiektua aurrera atera ahal izateko alegia. Inbertsioak eskatu aurretik, inbertsore horiek eskaintzen dituzten hainbat aspektu hartuko ditugu kontuan, horien artean: ea mailegu bereziren bat duten ekintzaile gazte izateagatik adibidez, edota ea bekak ematen dituzten, gure produktua aurrera eraman ahal izateko.